



LEIOA SBT KLUBAREN PRINTZIPIOAK, ANTOLAKETA ARAUAK, DIZIPLINA ETA BARNE HARREMANAK

PRINTZIPIO NAGUSIAK

1. Kluba udalerrriaren parte da; horrenbestez, klubeko kide guztiek jakin behar dute klubaren izena eta irudia ordezkatzen dutela, duten funtzioa dutela; jakin behar dute, halaber, taldeko kide izatea ohorea eta pribilegioa dela, eta hortaz, jokalekuan zein harmailetan haien jokabidea zaindu behar dutela.
2. Jatorri desberdineko jokalariei eta entrenatzaileen arteko elkarbizitza eta laguntasuna klubaren ondare nagusizat jotzen da. Hain zuzen ere, berez duen hezkuntza balioagatik ulertzen da horrela, gure inguruan kirolarien bizitza-estiloa eta saskibaloia bera bultzatzeko faktorea ere badelako.
3. Klubak, taldeen bidez, txapelketa ofizialetan parte hartzeko erantzukizuna hartzen du bere gain. Trukean, jokalariei eskatuko die txapelketetan parte hartzeko eta entrenatzaileen zein klubaren aginduak gorputzez eta arimaz betetzeko konpromisoa har dezaten.
4. Klubeko zein bertan elkartutako taldeetako jokalariei bakoitza taldekide izango da dituen ezaugarriengatik eta **haren interesagatik eta jarrera positiboagatik**. Gure taldeetan jokatzeko dutenei benetan gustatzen zaie saskibaloian jokatea, eta horregatik jokatzeko dute, eta ikasteko, hobetzeko eta gero eta hobeto jokatzeko dena ematen dute.
5. Talde bateko kide izateko konpromisoa onartu ondoren, soilik **familia eta eskola gaiak** (hezkuntzakoak) gailenduko zaizkie taldearekin lotutakoei. Hortaz, hobetzeko eta kasu bakoitzean gorengo mailara iristeko (maila pertsonalean eta talde eta klub mailan) guztiek erabateko kontzentrazioa eta interesa izatea espero da, horrek familia eta ikasketak alboratzea eragin gabe.
6. Klubak baimena eta kolaborazioa eskatuko die jokalariei gurasoei edo tutoreei, giza eta kirol formazio hobea bultzatzeko modu koordinatuan. Taldeak eta klubak eskubidea dute lan aginduak edo finkatutako antolaketa- eta diziplina-arauak betetzen ez dituen jokalaria edozein unetan baztertzeko.
7. Entrenatzaileak zinez saiatuko dira jokalariei bakoitzak taldeari eta klubari eman dakioken guztia aprobetxatzeko; jokalariei bakoitza gaitasunaren mugara irits dadin gogoz saiatuko dira, esperientzia ahal bezain probetxugarria izan dadin guztientzako, jokalariei zein pertsona diren aldetik.
8. Jokalariei eta klubaren arteko harremanak (teknikoak zein diziplinakoak) beti entrenatzailearen bitartez gauzatuko dira. Soilik salbuespen kasuetan eta aurretiaz entrenatzailearekin adostuta landuko dira jokalariei, taldeari edo klubari buruzko gaiak entrenatzailea ez den pertsona batekin.



JOKALARIANTZAKO ARAUAK

A) ORO HAR

1. Jokalari bat taldeko kide den unetik harentzat prestatutako jarduera guztietan hartu beharko du parte, baita edozein arrazoi dela medio entrenatu edo jokatu ezin duenean ere. Entrenatzailearekin aurkakoa adostea izango da salbuespen bakarra.
2. Jokalari batek, taldearekin duen edozein hitzordutara iritsitakoan, entrenatzailea eta jokalaria agurtu behar ditu. Berandu iritsiz gero, jokalaria entrenatzailearekin hitz egin beharko du atzerapena azaltzeko, eta taldearekin noiz bildu daitekeen adierazi arte itxaron beharko du.
3. Betiere, edozein lan ondo hasteko modu bakarra puntualtasuna da. Behin eta berriz berandu iristea taldearen aurkako errespetu falta larritzat joko da, baita seriotasun, fidagarritasun eta interes faltaren irudi nabarmentzat ere.
4. Halaber, inork ezingo du taldeen bileretatik alde egin horretarako baimenik izan gabe. Horrez gain, taldearen hurrengo hitzordua zein izango den jakin beharko du, eta kideak eta bereziki entrenatzailea agurtu beharko ditu.
5. Talde bakoitzean kide guztiek izan beharko dituzte beste kideen telefonoa eta helbidea; hala, lan plangintzan aldaketarik egonez gero elkarri deitu ahalko diote. Entrenatzaile bakoitzak finkatu beharko du bere taldearen barruan oharrak jokalarien bidez helarazteko ordena egokia.
6. Jokalarien eskura jarriko den material guztia klubarena izango da; adieraziko zaien unean eta moduan erabiltzeko betebeharra izango dute jokalariek, baita zaintzeko eta eskatutakoan itzultzeko ere.

B) ENTRENAMENDUETAN

Entrenamenduetan ez dira ariketak ohi bezala errepikatu behar, besterik gabe, denbora betetzeko. Aitzitik, kirolaren alderdi guztiak egunero hobetzean datza. Horretarako, funtsezkoa da lanean kontzentratzea eta entrenamenduko alderdi bakoitza zergatik eta zertarako den ulertzen saiatzea.

1. Jokalari batek ezin badu entrenamendu batera joan, aldez aurretik abisatu

beharko du. Entrenamendura ezin joatea bat-batean gertatuz gero, jokalariai lagunen bati eskatu beharko dio entrenatzaileari esateko; kasu horretan, berriz entrenatzera itzultzerakoan, lehenbailehen dagozkion azalpenak eman beharko dizkio entrenatzaileari.

2. Entrenamenduetan ezingo da baimenik gabe sartu edo irten, ez eta taldetik kanpoko inorekin hitz egin ere, nahiz eta klubekoa izan; horrez gain, debekatuta dago telefonoak edo gailu elektronikoak erabiltzea.

3. Entrenamenduen edo beroketa aurreko minutuetan ezingo da partidarik edo inolako lehiaketarik jokatu (3x3, 1x1, jaurtiketak...).

4. Entrenamenduetan ezingo da urik edan ez eta eseri entrenatzailearen baimenik gabe.

5. Entrenatzailea hitz egiten ari denean jokalariai guztiek adi entzungo diote, begietara begiratuko diote eta ez dute ezer esango, ez eta baloia botatuko ere.

6. Guztiek arin erantzun eta korrika egin beharko dute (oinez ez) entrenatzaileak taldea deitzen duen edo ariketa baterako kokaleku berriak ematen dituen bakoitzean.

7. Ariketa batean erabiltzen ez diren baloiek beti leku berean egon beharko dute, eta bukaeran batu beharko dira. Bukaeran baloia biltzeko ardura nork duen finkatu beharko da.

8. Jokalariak beti oinetakoak ondo daudela zaindu beharko dute, eta ondo lotuta izan beharko dituzte. Entrenamenduetara arropa egokia eta garbia eraman behar da, egun guztietan. Entrenamendua bukatutakoan jokalariai garbitu eta arropaz aldatu behar dira.

C) PARTIDETAN

1. Jokalariai guztiek, eskusiboki, klubak emandako arropak jantzi beharko dituzte; jokatzeko uniformearen azpitik ezingo dute elastikorik erabili, entrenatzaileak berariaz baimentzen ez badu.

2. Partidetara beti klubaren jantzi ofizial guztiak eraman behar dira (kolore alternatiboa barne, baldin badago). Elastikoa praken barrutik eraman behar da.

3. Jokalariak zein entrenatzaileek irudi pertsonala zaindu beharko dute, eta partidetan ondo jantzita eta garbi bertaratu beharko dira. Partidak bukatutakoan, jokalariai dutxa hartu eta arropaz aldatu beharko dute.

4. Ezin da eskumuturrekorik, orkatilakorik, belaunetakorik edo parekorik erabili, klubeko talde teknikoak eta sendagileak baimendu ez badute.

5. Ezin da bitxiekin, erlojuarekin eta parekoekin jokatu (ez eta entrenatu ere).

6. Jokalariai guztiak, ahal dela, elkarrekin iritsiko dira zelaira, eta elkarrekin alde egingo dute. Halaber, zelaiari dagokionez ere, elkarrekin sartuko eta irtengo dira.

7. Denak batera hasiko dira beroketa ariketak egiten, eta jokalariai guztiek egingo dituzte talde teknikoak adierazitako ariketa guztiak.

8. Ez da onartuko jokalariai keinu okerrik, zakarkeriarik edo erantzun txarrik ematea entrenatzaile bati, epaile bati edo kide bati. Horrelako

punturen bat ez betetzeagatik klubak zigorrik jasoz gero, zigorrak jokalariairengan izango du eragina.

9. Partidetan aulkian dauden jokalariek zuzentasunari eutsi beharko diote, eta jokoari arretaz eta interesez behatu beharko diote; erabat debekatuta dago ikusleei edo epaileei hitz egitea.

ERANSKINA

Klub bat dinamikoa izango bada, kide guztiek parte hartzea behar du, ondo funtziona dezan.

Klub honetako kide izateak esan nahi du klubak antolatzen dituen edo parte hartzen duen jarduera guztietan kolaboratu behar dela. Jokalariak klubaren esanetara egongo dira klubak denboraldian zehaztuko duen moduan.

Klubaren betebeharra da kide guztiek saskibaloiaz ikasi, gozatu eta horretan hobetu ahal izatea; horretarako guztiek lagundu beharko dute, esaterako epaile lanetan edo ohar-hartzaile gisa eskola kategorietan eta zenbait kasutan federatutako lehiaketetan, denboraldi bukaerako jaietan, hitzaldietan, txapelketetan, campusetan...

Klub honetako kide bihurtzean guztiek hartzen duten konpromisoa ez da dagokien taldean egiten duten kirol jarduera bakarrik. Are gehiago, elkartzen gaituen hori, alegia saskibaloian jokatzeko, ahal bezain baldintza onenetan egitean datza.



